

## Euskara eta politika

*Hondarribia*, 15. zk., 1987-08: 5.

Ea adierazi nahi dudana hitz gutxitan esateko gauza naizen.

Euskara niretzat gure herriaren arnasa da, eta diglosiaren anestesia maltzurrez beste hizkuntza bat sartzen badigute, zikiratu gaituzte, eta eunuko huts bilakatuko da euskalduna eta Euskalerria.

Eta akabo Euskadi.

Adios.

Euskararen aurkako erasoak zaharrak dira; bizpairu liburuetan ahalegindu naiz hauek eta berriagoak salatzen. Gure hizkuntzaren etsaiari, gerra! Ez dira, halere, euskararen arerioa guztiak kanpotik etortzen; askotan euskararen areioa euskalduna da; bere burua gorrotatzen duelako, alferkeriaz euskararen aldeko protesta alferrean bizi dena, eta baita, suertatu daiteke, euskararen alde lanean fin ari diren batzu ere.

Hauek, azken finetan, euskararentzat kaltegarri gerta baidaitezke.

Eta mekanismo erraza da: Euskarak, euskara bezala, gure herriko abertzaleak biltzen ditu, gure herriko kulturbidea indartzen du. Politika da, askotan, honek ekar dezaken politikeria medio dela, gure zatiketa bide. Ez dut esaten, noski, politikarik egin behar ez dugunik; egin behar dugu, bakoitzak bere den bidetik, eta bakoitzak horretarako dituen egunkari, aldizkari eta liburuen bitartez, eta hitzaldietan, bileretan, horretarako diren bide guztietan, eta hemen euskara erabiltzerik bada, hainbat hobe.

Baina ezin egin duguna zera da: gure herriak euskara aurrera atarako bada herritarrak euskara irakurriaren bideak ibiltzeko aldizkari bat sortu, "*Hondarribia*" eta egoera honetan euskal herraminta eder hau politikeria bat egiteko tentazioan erori.

Neuri ajola gutxi zein taldek egiten duen hori, denak gaitzetsiko bait ditut.

Gure artean politikoak diren arazoak eta borrokak haizatzeko bada beste biderik. Eta gure herrian euskara irakurrarazteko bide bat, eta ona, ondo egina, sortu eta gero, bide hau hondatzeko bidetik ihes egin behar dugula uste dut.

Kasu berezi honetan, euskara da gure politika eta partidua.